

IRUÑERRIAN TAXI ZERBITZUA BATERA EMATEKO LURRALDE EREMUAN TAXI ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROIEKTUA EGIN AURRETIKO HERRI KONTSULTA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Aurrekoa betetze aldera, eta aldaketa egin aurretik, lehenago aipatu den ordenantza aldatzeko proiektuari buruz alderdi hauek planteatzen dira:

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

- 1.- Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen ekainaren 30eko 8/2025 Foru Legea egokitzea ordenantza.
- 2.- Taxi-lizentzia baten titularrek bideratu behar dituzten izapideak egitean zehatzagoak izateko bidea ematen duten alderdi batzuk gehitzea.
- 3.- Aldaketak gehitzea, ordenantza bat etortzeko egungo ibilgailuen ezaugarriekin eta teknologia berriekin, zerbitzu hobea eskaintze aldera.
- 4.- Erreklamazio-liburuari dagozkion aldaketak gehitzea, hiriarteko baimenik ez duten titularrentzat.
- 5.- Tele Taxi San Fermín elkarteak aurkeztutako eskaera aztertu eta hari erantzuna ematea.
- 6.- Egun indarrean dagoen ordenantzan aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

- 1.- Iruñerriko Mankomunitatea zenbait jarduketa gauzatzen ari da, taxi-zerbitzuan eskaintza hobetzeko eta taxi-zerbitzuaren erabiltzaileen eskaerei eta beharrei arreta emateko helburuarekin. Lan horren ondorioetako bat izan da Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzea hainbat alderditan, eta haien artean nabarmendu behar dira soldatapekoen kontrola eta malgutzea. Aldaketa horien ondoren, alderdi horiek egokitzapena behar dute zerbitzua arautzeko ordenantzan bertan.

2.- Ordenantza egun dagoen moduan idatzita, uste da badirela zenbait izapide, hala nola bisa edo ibilgailuaren antzinasun maximo baimendua luzatzea, edo aldatu egin behar direnak edo alderdi batzuk zehaztu behar direnak, aplikatzean zalantzarik egon ez dadin.

3.- Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak eko edo zero emisioko moduan sailkatutako ibilgailu ekologikoek bilakaera nabarmena eduki dute azken urteetan, eta bai teknologiek ere. Alderdi horiek egokitzapena behar dute ordenantzan bertan.

4.- Hiri-zerbitzuak emateko baimenduta dauden taxi-gidari gehienak Nafarroako Gobernuak baimendutako hiriarteko zerbitzuetarako baimenduta daude, eta erabilitako erreklamazio-liburua Nafarroako Gobernuak berak jaulkitakoa da. Hala, bereizi gabe erabiltzen da hiriko zerbitzuetan eta hiriartekoetan. Edonola ere, bada taxi-gidariren bat hiriarteko zerbitzuetan aritzeko baimenik ez duena eta, hortaz, liburu hori ez duena. Hori dela-eta, ordenantzak egoera hori aintzat hartu beharko du, erreklamazio-liburu propioa eduki ahal izateko.

5.- Tele Taxi San Fermín elkarteak aurkeztutako eskaerari erantzuna ematea.

6.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak.

c) Arauaren helburuak.

1.- Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen ekainaren 30eko 8/2025 Foru Legea egokitzea ordenantza.

2.- Taxi-lizentzia baten titularrek egin behar dituzten izapideetan prozedura eta epeak argi uztea.

3.- Ordenantza egokitzea ibilgailu berrietara eta teknologia berrietara, zerbitzu hobea eskaintzeko, gero eta iraunkorragoa eta seguruagoa.

4.- Nafarroako Gobernuaren hiriarteko zerbitzuetarako baimenik ez duten taxi-gidariei, erreklamazio-libururik ez edukitzeagatik, noizean behin gertatu zaizkien egoerei irtenbidea aurkitzea.

5.- Tele Taxi San Fermín elkarteak aurkeztutako eskaera aztertzea eta hari erantzuna ematea.

6.- Beharrezkoak diren aldaketa, egokitzapen eta zuzenketa txikiak egitea.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaille eta ez-erregulatzailleak.

Ez dira planteatzen.

Herri-kontsultaren hartzaileak:

Iruñerriko herritar guztiak.

Iruñerriko taxi-gidariak.

Iruñerriko taxi-gidarien elkarteak.